

FUTBOLEKO ARAUDIA 2015-2016

	BENJAMINAK LH3-4	ALEBINAK LH5-6
JOKALARI KOPURUA	6 + atezaina	
ALDAKETAK	Aldaketak atsedendietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko.	
JOKA DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK	Gehien eta gutxien jokatu duten jokalarien artean, gehienez zati baten aldea egon daiteke, (luzapenak barne). <i>Adibidez, taldekideren batek 4 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 3 zati jokatu behar dituzte.</i>	
ATEZAINAK	Gehienez 2 zati joka ditzake atezain gisa. <i>(4 zatiak joka ditzake, baina 2 atezain eta 2 jokalaria moduan izan behar du, eta gogoratu kasu honetan, beste taldekide guztiek 3 zati jokatu beharko dituztela).</i>	
IRAUPENA	10 minutuko 4 zati. (4 x 10)	
ATSEDENALDIAK	3 minutukoak	
PARTIDUKO AZKEN EMAITZA	Partidu amaierako golen arabera. <i>Talderen bat 10 goleko diferentziaz irabazten ari bada, hortik aurrerako golak ez dira aktan apuntatuko. Akta itxita geratzen da.</i>	Partidu amaierako golen arabera.
FALTAK	Falta guztiak zuzenekoak izango dira, salbuespen batekin. Taldekide batek bere atezainari pasa eta honek eskuekin hartzen duen kasuetan falta ez zuzena izango da.	
JOKOZ KANPOA	Jokoz kanpoa, area eta bere luzapenaren barruan bakarrik zigortuko da.	
ZIGORRAK	Epaileak hala baderitzo, 2 minutuko kanporaketa agindu dezake eta txartel horia atera. Txartel gorria ateraz gero, jokalaria hori kanporatua izango da partida amaitu arte eta bere ordeztu beste jokalaria ordurarte gutxien jokatu duen taldekidea sartuko da 2 minutu beranduago. 2 minutuz jokalaria bat gutxiagorekin egon beharko dute.	
TXAPELKETA MODUA	Ez dago txapelketarik	Txapelketako irabazlea, kanporaketa bidez erabakiko da, final erdi eta finalekin.